



KULTUR ETXEKO IKASTAROEN PROZEDURA

- Izena emateko epea *abenduaren 9tik 23ra izango da. **Ikasle guztiek eman beharko dute izena, orain arte barruan egon direnak ere bai.***
- Lehentasunak honakoak izango dira: **1. Igorreko bazkideak, 2. Igorreko ez bazkideak, 3. Kanpoko bazkideak eta 4. Kanpoko ez bazkideak.**
- **Abenduaren 26an** beharrezkoa den ikastaroetan **zozketa** burutuko da eta zerrendak osatuko dira, barruan dauden ikasleek **ordainketa bideratu dezaten** (Kultur Etxean bertan, eskudirutan edo txartelarekin).
- **Ordainketa** egiteko epea **abenduaren 27tik urtarrilaren 3ra izango da.** Ikastaro guztiak hiruhilabetekoak izango dira, eta **matrikula egiterakoan hiruhilabete osoa ordainduko da** (urtarrila-martxo kasu honetan).
- **Urtarrilaren 3rako ordainketa bideratu ez duten ikasleek** plazari uko egiten diotela ulertuko da eta **itxaron zerrendako hurrengoari deituko zaio.**
- Erabiltzaileek ordutegi batean baino gehiagotan eman ahal izango dute izena, plantillan ematen zaizkien aukeren arabera. **Horretarako izena ematen denean ordutegi bakoitzaren lehentasuna zein den adierazi beharko dute (gehien interesatzen zaiena 1, hurrengoa 2, eta horrela hurrenez hurren).**
- Kanpoan gelditzen diren erabiltzaileak itxaron zerrendan geldituko dira ordenean, eta bajaren bat sortzen denean ordena horretan deituko zaie. **Itxaron zerrenda honek 2020ko abendurarte izango du balioa.** Posiblea izango da urtean zehar edozein momentutan itxaron zerrendan sartzea, baina zerrendaren amaieran, lehentasunak kontuan izan gabe.